

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
HIZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIO TREBETASUNAK II	141216	2020/2021
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA	2.a	1.a
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
DERRIGORREZKOA	6	Euskara Ingelesa
Irakaslea(k)		
M ^a Dolores SÁNCHEZ, Roberto MIELGO MERINO		

Justifikazioa

Ikasgai honetan, batetik, lehen hezkuntzako irakasleek eskolan eta eskolako harremanetan erabili behar dituzten abilezia komunikatiboak landuko dira. Horretarako eremu honetan ohikoak diren testu generoak aukeratu dira eta horiek ekoizteko erabakiak eta baliabideak ezagutu eta euren erabileran entrenatuko dira.

Bestetik, ikasgai honen bidez ingeleseko irakasleek gelan sortzen diren egoera desberdinetan izan behar dituzten oinarrizko trebetasun komunikatiboak ere landuko dira, eta egoera horietan hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko jarraibideak emango zaizkie.

Horrez gainera, hizkuntzaren erabileraren hausnarketa metalinguistikoa egitea bideratuko da.

Aurrebaldintzak

Ez dago aurrebaldintzarik

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

G.O:1. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA

1. Menderatze Maila. Norberak pentsatu edo sentitzen duena idatziz zuzen eta argi komunikatzea, baliabide egokiak erabiliz, idazki laburretan.

Adierazleak:

- Argi azaltzen ditu ideiak.
- Gramatika aldetik zuzen idazten du.
- Dokumentu motari eta hartzaileari egokitutako hizkera erabiltzen du.
- Idazkiaren irakurketa eta ulermena errazteko baliabide egokiak erabiltzen ditu.

Berriazko gaitasunak

B.G.1. Komunikazio hizkuntza egokitasunez eta zuzentasunez erabili eskola eremuan, erakundeen arteko harremanean, eta zuzen eta egoki sortu arlo horretan erabiltzen diren testu generoak.

Adierazleak:

- Generoari dagokion egoera komunikatiboa kontuan izanik, testua zuzen eraikitzen du, egoera definitzen duten faktore garrantzitsuak kontuan izanik: hartzaile eta igorlearen izaera, helburu komunikatiboa, toki soziala, edukia eta beraren fokalizazioa.
- Generoari dagokion planifikazioa eraikitzen du.
- Planifikazioa argi adierazteko hizkuntza baliabide egokiak erabiltzen ditu.
- Gaiak eta komentarioak lotzen ditu, prozedura anaforiko desberdinak erabiliz.
- Enuntziatuak erlazionatzen ditu konektore egokiak erabiliz.
- Enuntziatuan bere jarrera erakusteko baliabideak egoki erabiltzen ditu.

B.G.2. Hizkuntzaren didaktikako irakaskuntza edukia, hau da, testuak, modu objektibo eta behagarrian deskribatu.

- Lantzen ari den testuaren funtzionamenduari buruzko hausnarketa metalinguistikoa egiten du.
- Ebaluaketa irizpideak eraiki eta erabiltzen ditu, sortutako testuak ebaluatzeko eta horren arabera birformulatzeko.

B.G.3. Communicating clearly and correctly in the teaching language, orally and in writing, in the Primary Education classroom.

- Using appropriate classroom English and different conversational strategies in interventions with Primary Education students.
- Producing and interacting orally in English at level B1/B2 conveying relevant information.
- Matching speech and body language when giving class instructions.
- Analysing authentic instructive texts in terms of contextualization, planification and textualization.

- Producing successful instructive texts at level B1/B2 taking into account the contextual features of the communicative situation, the structure of this type of texts, the text markers for clear development of ideas and the different types of connectives to link clauses effectively.

Edukiak

1. Ikastetxeko harremanei lotutako testu generoen ekoizpena:
 - Zirkularra
 - Debatea
2. Communicative skills for Primary Education Teachers:
 - Classroom English.
 - Total Physical Response.
3. Instructive texts.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikasleen esperientziak azaleratzea: ikasgai honetan ikasleak egoera komunikatibo desberdinetan bizi izandako esperientziak azaleratuko ditu, irakasle-ikasle zein ikasleen arteko interakzioaren bidez; era berean, ikasgaian lantzen diren egoera komunikatiboari dagozkien testuak ekoitziko dituzte. (%10)

Egoera eta testuen behaketa eta hausnarketa: Egoera komunikatiboari dagozkion testu genero arketipoak behatuko dira galdetegiaren laguntzarekin eta behaketa horretatik ondorioak aterako dira. Horrez gainera, norberaren zein kideen produkzioak ere aztertu eta behatuko dituzte, bertan hartutako erabakiak justifikatuz. (%15)

Kontzeptualizazioa: Ikasgai honetan, abileziak lantzeko egingo diren jarduera eta ariketak ondoren hausnarketa eta teorizazioa izango dute. Era berean testuen irakurketa eta behaketaren ondoren bateratze edo eztabaida saioak antolatuko dira, ikasleek egindako teorizazioaren egokitasunaz hitz egiteko, eta tarteka irakaslearen azalpenak izango dira. (%35)

Esperimentazio aktiboa: bereganatutako abilezia entrenatzeko ariketa mota desberdinak izango dira: produkzio partzialak edo osoak; hutsuneak betetzeko ariketak; oker dauden produkzioak zuzentzeko ariketak, etab. (%40)

Ebaluazioa

Euskarazko atala:

- Testu produkzioa idatziz: Zirkularra %40
- Testu produkzioa ahoz: Debatea %40
- Gelako atazak %20

Ingeleseko atala:

- EXAM: 20 %
- Role-plays, direct questioning, different classroom activities in pairs and groups, class debates, in-class simulations, class games, microteaching project: 10%
- FINAL PROJECT: % 50
- Production of instructive texts:20 %

Dokumentazioa

ARRIOLA, J., BILBAO L., IBARRA, J., IBARRA, G., LAUZIRIKA, A., MIELGO, R., OCERINJAUREGUI, J., OCIO, B. (2006) *Testugintza*, EUMBAM, Bilbao BASSOLS, M. (2003) *Modelos textuales teoría y práctica*, Octaedro ediciones.

DOLZ, Joaquim; VILÀ, Montserrat (Koord.) (1997): "L'oral formal", *Articles*, 12 (monografikoa).

FAYOL, M., (1985), *Le récit et sa construction*, Delachaux et Niestlé, Paris.

GARDNER, B. & GARDNER, F. (2000), *Classroom English*, Oxford Basics.

- IDIAZABAL, I. et al. (1990), *Hizkuntzaren psicopedagogía. Testu motak*. Labayru Ikastegia, Bilbao.
- CAMPS, A. (2003), *Secuencias didácticas para aprender a escribir*, Grao, Barcelona
- PONS, S. (2005), "la enseñanza de la pragmática en la clase de E / LE", en *Cuadernos de pedagogía el español / LE*, Arco Libros, S. L
- REILLY, V. & M. WARD, S. (1997), *Very Young Learners*, Oxford University Press.
- SALABERRY, S. (1995), *Classroom Language*, Heinemann.
- SALKIE, R., (1997), *Text and Discourse Analysis*, Routledge, London and New York.
- SLATTERY, M. & WILLIS, JANE (2001), *English for Primary Teachers*, Oxford University Press.
- THORNBURY, S. (2005), *Beyond the sentence: Introducing Discourse Analysis*, Oxford, MacMillan Education.